TOLOSAKO UDALA

# 2020KO TOLOSAKO INAUTERIETAN SALMENTA-POSTUAK JARTZEKO OINARRIAK

# *BASES PARA LA INSTALACIÓN DE PUESTOS DE VENTA EN LOS CARNAVALES DE TOLOSA DE 2020*

| | |
|---|---|
| **<u>HELBURUA</u>** | **<u>OBJETO</u>** |
| Oinarri hauen helburua da Tolosako Inauterietan postua jartzeko jarraibideak eta baldintzak ezartzea. | Es objeto de estas bases establecer las condiciones e instrucciones para la instalación de puestos en los carnavales de Tolosa. |
| Inauteriak **2020ko otsailaren 20tik 25era** bitarte ospatuko dira. | Los carnavales se celebrarán **del 20 al 25 de febrero de 2020**. |
| **<u>KOKAPENA ETA ORDUTEGIAK</u>** | **<u>UBICACIÓN Y HORARIOS</u>** |
| Antolakuntzak erabakiko du aukeratutako postuen kokapena, saltzen diren produktuen arabera. Hauek dira salmenta-motak: | La ubicación de los puestos seleccionados lo determinará la organización, en función de los productos a la venta. Las modalidades de venta son las siguientes: |
| **<u>EGUNEKO SALMENTA</u>:** | **<u>VENTA DIURNA</u>**: |
| **1.- <u>Orokorra</u>:** | **1.- <u>General</u>:** |
| • Kokalekua: San Frantzisko pasealekua. | • Ubicación: Paseo San Francisco. |
| • Muntatzeko ordutegia: Postuak eta produktuak otsailaren 20ko 14:00etarako egon behar dute jarrita. Muntatzeko lanak ezin izango dira 07.00ak baino lehenago hasi. | • Horario del montaje: Los puestos y los productos estarán instalados y dispuestos el día 20 de febrero para las 14:00 h. No se podrán iniciar los trabajos de montaje antes de las 07:00 h. |
| • Salmenta-ordutegia: eguneroko salmenta 09:00etan hasi ahal izango da eta postua 00:00etarako itxi behar da. | • Horario de venta: la venta diaria se podrá iniciar a las 09:00 horas y a las 00:00 horas se deberá cerrar el puesto. |
| • Desmuntatzeko ordutegia: postuak otsailaren 26ko 15:00ak baino lehen jaso behar dira. | • Horario del desmontaje: los puestos se deberán recoger antes de las 15:00 horas del día 26 de febrero. |
| **2.- <u>Janaria saltzen duten kamioiak</u>:** | **2.- C<u>amiones tienda de comida</u>:** |
| • Kokalekua: Alondegia plaza. | • Ubicación: Alondegia plaza. |
| • Salmenta-ordutegia: eguneroko salmenta 09:00etan hasi ahal izango da eta postua 00:00etarako itxi behar da. | • Horario de venta: la venta diaria se podrá iniciar a las 09:00 horas y a las 00:00 horas se deberá cerrar el puesto. |
| **3.- <u>Talo-salmenta</u>:** | **3.- <u>Venta de talos</u>:** |
| • Kokalekua: San Frantzisko pasealekua. | • Ubicación: Paseo San Francisco. |
| • Muntatzeko ordutegia: Postuak eta produktuak otsailaren 20ko 14:00etarako | • Horario del montaje: Los puestos y los productos estarán instalados y dispuestos |

| | |
|---|---|
| egon behar dute jarrita. Muntatzeko lanak ezin izango dira 07.00ak baino lehenago hasi.<br>• Salmenta-ordutegia: eguneroko salmenta 09:00etan hasi ahal izango da eta postua 00:00etarako itxi behar da.<br>• Desmuntatzeko ordutegia: postuak otsailaren 26ko 15:00ak baino lehen jaso behar dira. | el día 20 de febrero para las 14:00 h. No se podrán iniciar los trabajos de montaje antes de las 07:00 h.<br>• Horario de venta: la venta diaria se podrá iniciar a las 09:00 horas y a las 00:00 horas se deberá cerrar el puesto.<br>• Horario del desmontaje: los puestos se deberán recoger antes de las 15:00 horas del día 26 de febrero. |
| **4.- <u>Globo-salmenta</u>:**<br><br>• Kokalekua: kalez kaleko salmenta.<br>• Ordutegia: Postuak 09:00etatik aurrera jarri ahal izango dira eta jaso behar dira 00:00etarako . | **4.- <u>Venta de globos</u>:**<br><br>• Ubicación: Itinerante.<br>• Horario: Los puestos podrán instalarse a partir de las 09:00 h. y se deberán recoger para las 00:00 h. |
| **<u>GAUEKO SALMENTA</u>:**<br><br>Janaria saltzen duten kamioiak bakarrik.<br><br>• Kokalekua: Rondilla kalea eta Euskal Herria plaza.<br><br>• Ordutegia: 22:00etatik 05:00ak arte. | **<u>VENTA NOCTURNA</u>:**<br><br>Exclusivamente camiones tienda de comida.<br><br>• Ubicación: Calle Rondilla y plaza Euskal Herria.<br><br>• Horario: de 22:00 a 05:00 horas. |
| **<u>ESKATZAILEAK</u>**<br><br>Pertsona fisikoak (edo beren ordezkariak) edo juridikoak. | **<u>SOLICITANTES</u>**<br><br>Personas físicas (o sus representantes) o jurídicas. |
| **<u>AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA</u>**<br><br>- Dokumentu guztiek pertsona edo enpresa beraren izenean egon behar dute.<br><br>- Dokumentu horien fotokopiak aurkeztu beharko dira. Eskabidea ez da tramitatuko dokumentazioa irakurtezina eta/edo osatugabea badu. | **<u>DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR</u>**<br><br>-Todos los documentos deberán estar a nombre de la misma persona o empresa.<br><br>- Deberán presentarse fotocopias de los citados documentos. No se tramitará ninguna solicitud en la que la documentación sea ilegible y/o incompleta. |
| <u>Dokumentazio orokorra</u>:<br><br>• Eskabide-orria, behar bezala beteta dagoela.<br>• NAN edo antzeko beste nortasun agiriren | <u>Documentación general</u>:<br><br>• Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.<br>• DNI o copia de algún otro documento de |

| | |
|---|---|
| baten kopia, eta, pertsona juridikoen kasuan, IFKren kopia.<br>• Eskabidea ordezkariak eginez gero, bamena ematen duen ordezkaritza-dokumentua.<br>• Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela ziurtatzen duen agiria, eskatzailearen izenean egon behar duena. Eskatzailea pertsona fisiko bat bada, ez da onartuko enpresaren izenean dagoen dokumentaziorik.<br>• Jarduera ekonomikoaren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguru baten ordainagiria eta poliza (Gutxienez 150.000 euroko estaldura).<br>• Eskatzaileak aurkeztu beharko du, halaber, saltzen den produktua dela-eta legez exijitu litekeen beste edozein agiri. | identidad análogo, y copia del CIF, en el caso de personas jurídicas.<br>• En el caso de que lo solicite el/la representante, el documento de representación, dando la autorización.<br>• Certificado de estar al corriente en las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social. El documento debe estar a nombre del solicitante, no se aceptará documentación a nombre de la empresa, si el solicitante es una persona física.<br>• Recibo y póliza de un seguro de responsabilidad civil que cubra los riesgos de la actividad económica (Mínimo una cobertura de 150.000 euros).<br>• El/la solicitante deberá presentar cualquier otro documento legalmente exigible conforme al objeto de venta. |
| <u>Elikagaiak saltzen dituen eskatzaileak</u><br><br>• Osasun-erregistro edo osasun-baimenaren zenbakia.<br>• Ontziratu gabeko produktuak saltzen badira, elikagaien manipulatzaile-txartela edo, hori izan ezean, egindako ikastaroaren ziurtagiria. | <u>Solicitantes que venden productos alimenticios</u><br><br>• N.º de registro sanitario o autorización sanitaria.<br>• Carnet de manipulador de alimentos o en su defecto certificado del curso realizado, en el caso de venta de productos sin envasar. |
| <u>Artisautza-postuak</u><br><br>• Dagokion herrialdeko artisau-erregistroan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria | <u>Puestos de artesanía</u><br><br>• Documento acreditativo de estar dado de alta en el registro de artesanos del territorio correspondiente. |
| **<u>ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA</u>**<br><br>Epea: 2019ko abenduaren 2tik (astelehena) abenduaren 20ra (ostirala), 14:15ak arte.<br><br>Aurkezteko aukerak:<br><br><u>Aurrez aurre</u><br><br>TOLOSAKO UDALA<br>Plaza Zaharra, z/g<br>20400-TOLOSA | **<u>PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES</u>**<br><br>Plazo: Del 2 de diciembre de 2019, lunes, al 20 de diciembre, viernes, hasta las 14:15 horas.<br><br>Cómo presentarlo:<br><br><u>Presencialmente</u><br><br>TOLOSAKO UDALA<br>Plaza Zaharra, z/g<br>20400-TOLOSA |

| | |
|---|---|
| Ordutegia: 07:15 – 14:15 (astelehenetik asteazkenera, eta ostiralean)<br>07:15 – 19:00 (ostegunean)<br><br>Posta arruntaz<br><br>Posta bulegoetan, posta ziurtatu irekiaren bidez.<br><br>Telematikoki<br><br>www.tolosa.eus | Horario: 07:15 – 14:15 (de lunes a miércoles y el viernes).<br>07:15 – 19:00 (el jueves)<br><br>Mediante correo ordinario<br><br>En las oficinas de Correos, mediante correo certificado abierto.<br><br>Telemáticamente<br><br>www.tolosa.eus |
| **AUKERATZEKO IRIZPIDEAK**<br><br>A.- Eguneko salmenta orokorrean onartutako produktuak:<br><br>Talde honetan honako salmenta kategoria hauek baimenduko dira:<br><br>• Artisautza: 4 postu gehienez<br>• Arropa eta zapatak: 4 postu gehienez<br>• Elikagaiak: 4 postu gehienez<br>• Osagarri eta bitxiak: 4 postu gehienez<br>• Askotariko produktuak: 3 postu gehienez<br><br>Postu guztiek batuta hartzen duten tartea izango da 99 m luze eta postu bakoitza gehienez 6 m luze izango da. Ez balego produktu-mota bakoitzeko ezarritako gehieneko postu-kopurua betetzeko behar adinako eskaerarik, antolakuntzak beste produktu-mota bati adjudika liezazkioke postu horiek.<br><br>Eskatzaile bakoitza bakarrik salmenta kategoria batera aurkeztu daiteke.<br><br>B - Eskaera kopurua eskainitako postuak baino handiagoa bada<br><br>Parte-hartzaileek oinarri hauetan zehaztutako ezaugarriak bete beharko dituzte eta eskatutako dokumentazioa epearen barruan aurkeztu. Baldin eta behar bezala betetako eskaera kopurua eskainitako postuak baino handiagoa bada, zozketa egingo da. Zozketa bat egingo da | **CRITERIOS DE SELECCIÓN**<br><br>A.- Productos autorizados en la venta diurna general:<br><br>En este grupo se autorizarán las siguientes categorías de venta:<br><br>• Artesanía: máx. 4 puestos<br>• Ropa y calzado: máx. 4 puestos<br>• Alimentación: máx. 4 puestos<br>• Complementos y joyería: máx. 4 puestos<br>• Productos varios: máx. 3 puestos<br><br>La longitud ocupada por todos los puestos será de 99 metros y la longitud máxima permitida para cada puesto será de 6 metros. Si no hubiera solicitudes suficientes para ocupar el máximo de puestos establecido para cada tipo de producto, la organización podrá adjudicar esos puestos a otro tipo de producto.<br><br>Cada solicitante podrá presentarse a una única categoría.<br><br>B – En el caso de que el número de solicitudes sea superior al número de puestos<br><br>Los/las participantes deberán cumplir con las características especificadas en estas bases y presentar la documentación en plazo. Si el número de solicitudes correctamente cumplimentadas es superior al número de puestos propuestos, se adjudicarán mediante |

| | |
|---|---|
| salmenta-mota eta/edo produktu-mota bakoitzeko. | sorteo. Se realizará un sorteo para cada modalidad de venta y/o tipo de producto. |
| <u>C - Eskaera-kopurua eskainitako postuak baino txikiagoa bada</u> | <u>C- En el caso de que el número de solicitudes sea inferior al número de puestos</u> |
| Postu guztiak betetzeko adinako eskaria ez badago, epez kanpo egindako eskaerak onartuko dira, beti ere eskaerak behar bezala beteta eta dokumentazio guztia dutela badaude. Kasu honetan, eskaeren erregistro-ordenari jarraituko zaio postuak betetzeko garaian. | Si no hay suficiente demanda como para cubrir todos los puestos, se admitirán las solicitudes realizadas fuera de plazo, siempre y cuando estén correctamente cumplimentadas y con la documentación precisa. En este caso, se seguirá el orden de registro de las solicitudes a la hora de cubrir los puestos. |
| Antolatzaileek aldez aurretik jakinaraziko die aukeratuei beren parte-hartzea eta emandako lekua (exijitutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatutakoan, jakina). | La organización notificará con antelación a los/las seleccionados/as su participación y la ubicación asignada, una vez comprobado el cumplimiento de las condiciones exigidas. |
| **<u>PROZEDURAREN EPEA</u>** | **<u>PLAZO DEL PROCEDIMIENTO</u>** |
| • Aurreikusitako epea: 2 hilabete.<br>• Legezko epea: gehienez 3 hilabete. | Plazo previsto: 2 meses.<br>Plazo legal máximo: 3 meses. |
| Administrazioaren isiltasunak eskaera ez dela onartu adieraziko du. | El silencio administrativo tendrá efecto desestimatorio. |
| **<u>TASAK</u>** | **<u>TASAS</u>** |
| Indarrean dauden Ordenantzak Fiskalak ezarritako tasak ordaindu beharko dira. | Deberán abonarse las tasas establecidas por las Ordenanzas Fiscales en vigor. |
| **<u>ARAUDI APLIKAGARRIA</u>** | **<u>NORMATIVA APLICABLE</u>** |
| • Tolosako Udalerrian Kaleko Salmenta arautzen duen ordenantza.<br>• 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.<br>• 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duena. | • Ordenanza reguladora de la venta ambulante en el municipio de Tolosa.<br>• Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.<br>• Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales. |

| **BAIMENAREN BALDINTZAK** | **CONDICIONES DE LA AUTORIZACIÓN** |
|---|---|
| • Baimendutako produktuak bakarrik saldu daitezke.<br><br>• Baimena jasoz gero, horren titularrak pertsonalki jardun beharko du kasuan kasuko jardueran, bai zuzenean bai behar bezala baimendutako enplegatu edo laguntzaileen bidez, aurrez jakinaraziz Inauterietako antolatzaileei nor egongo den baimendutako saltokian eta bere NAN zenbakia erraztuz.<br><br>• Baimena aurtengo Inauterietarako soilik izango da, sekula ez du berritze automatikorako prozedurarik eragingo.<br><br>• Udalak edozein unetan egin ahal izango ditu eskatzen diren baldintzen eta zerga arloko zein Gizarte Segurantzarekiko betekizunen inguruko egiaztapenak. Egiaztatzen bada interesdunak ez dituela betetzen finkatu diren baldintzak, baimena bertan behera utzi ahal izango da. | • Sólo podrá ponerse a la venta los productos para los que se haya concedido la autorización.<br>• La autorización conlleva la obligación de su titular de ejercer la actividad de forma personal, directamente o a través de las personas empleadas o colaboradoras debidamente autorizadas, debiendo notificar a la organización esta circunstancia con anterioridad a la celebración de los carnavales y facilitando el DNI de la persona que ocupará el puesto autorizado.<br>• La autorización se limitará a los carnavales de este año, y en ningún caso dará lugar a un procedimiento de renovación automática.<br>• El Ayuntamiento posee la facultad de realizar comprobaciones en cualquier momento respecto a los requisitos exigidos y las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social. Si se comprueba que la persona interesada no cumple los requisitos establecidos, la autorización podrá ser revocada. |
| **BAIMENAREN TITULAR DIREN PERTSONEN BETEKIZUNAK** | **OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS TITULARES DE LA AUTORIZACIÓN** |
| • Antolakuntzak kokalekuaren arabera ezarri dituen muntatze- eta jasotze-ordutegiak errespetatzea.<br>• Kokagunea, baimendutako okupazio-azalera, perimetroak eta salmentarako lekuak errespetatzea. Bestalde, ezingo dira jarri kaleek bat egiten duten tokietan, oinezkoentzako pasaguneetan edo etxebizitza, denda edo ibilgailuentzat gordetako sarreretan.<br>• Baimena eta NAN erakustea antolakuntzak izendatutako pertsonei eta Udalak horretarako propio emango dien identifikazio txartela jendeak erraz ikusteko moduan jartzea. Hori egin ezean, edo baimenean jaso gabeko produktuak | • Respetar los horarios de montaje y recogida establecidos por la organización en función de la ubicación.<br>• Respetar el emplazamiento, la superficie de ocupación autorizada, los perímetros y lugares para el ejercicio de la venta. No podrán, asimismo, situarse en las confluencias de calles, pasos de peatones o entradas reservadas a viviendas, comercios o vehículos.<br>• Presentar la autorización y DNI a las personas asignadas por la organización y exponer de forma fácilmente visible para el público la Tarjeta Identificativa que les sea facilitada por el Ayuntamiento a tal efecto. El incumplimiento de esta |

| | |
|---|---|
| saltzen hasiz gero, kautelazko neurri gisa saltokia jasoarazi ahal izango da, baldin eta edozein bitarteko egokiren bidez eta aurrez eskatuta, titularrak ez badu egiaztatzen horretarako baimena duela edo daukan baimenak beste produktu horiek ere saltzeko baimena ematen diola. | obligación o la venta de productos no incluidos en la autorización podrá dar lugar al levantamiento cautelar del puesto si su titular no acredita, por cualquier medio apto y previo requerimiento, que dispone de la autorización o que la autorización de que disponga permite la venta de los productos de que se trate. |
| • Uneoro bere produktuen kalitatearen arduradun izango dira, ezingo dute arriskurik eragin kontsumitzaileen osasun edo segurtasunerako, ezta kalitate edo kantitate aldetiko iruzurrik ere, eta ezingo dira produktu faltsifikatuak edo identifikatu gabeak izan, edo merkatura ateratzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak. | • Serán responsables en todo momento de la calidad sus productos, sin que puedan ocasionar riesgos para la salud o seguridad de quienes lo consuman, supongan fraude en la calidad o cantidad, sean falsificados, no identificados o incumplan los requisitos mínimos para su comercialización. |
| • Postuan kartel eta idatzirik egonez gero, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko luke. Kartel hauek egiterakoan erabiliko diren mezuak, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako araudia errespetatu beharko dute, hizkuntza inklusibo ez sexista erabiliaz. | • Si se colocara algún tipo de cartel en el puesto, el mismo deberá redactarse en euskera o en las dos lenguas oficiales. Los mensajes que se utilicen en la elaboración de carteles deberán respetar la normativa de igualdad entre mujeres y hombres, utilizando un lenguaje no sexista. |
| • Antolakuntzak eskumena izango du postuaren titularraren inguruko galderak egiteko, argazkiak ateratzeko eta produktua saltzeko baimenaren baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko. | • La organización podrá realizar las correspondientes comprobaciones acerca del titular del puesto, sacar fotografías y verificar si se cumplen las condiciones en las que se ha otorgado el permiso. |
| • Inauterietara etorri ezina izanez gero, aurretik jakinarazi beharko zaie antolakuntzako arduradunei. | • En caso de no poder asistir a los Carnavales, deberá comunicarse con anterioridad a los responsables de la organización. |
| **<u>ARAUDIA EZ BETETZEA</u>** | **<u>INCUMPLIMIENTO DE LA NORMATIVA</u>** |
| Ezarritako baldintzak ez betetzeak berekin ekarriko du Tolosako udalerrian kaleko salmenta arautzen duen ordenantzan xedatutako zigor-araubidea aplikatzea. | El incumplimiento de las obligaciones establecidas conllevará la aplicación del régimen sancionador establecido en la Ordenanza reguladora de la venta ambulante en el municipio de Tolosa. |